

# HAR EZAK

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**LAURA** eta **PEDRO** bikote gazte bat dira. Institutuan ezagutu zuten elkar, orain dela zazpi urte, eta ordutik elkarrekin daude. **LAURAK**, oso gaztetatik, supermerkatu batean lan egiteko moda-diseinatzaile izateko ametsari uko egin zion. **PEDRO**ri, ordea, amesten duten lana eskaini diote, Estatu Batuetan. Hain dago hunkituta, badirudiela ez dela **LAURAZ** gogoratzen abentura berrirako.

**LAURA:** Nire iritzia? Baietz esan. Hirea duk. Beti egin nahi izan duk hori. Zer dituk hiru urte? Hara joan naitekek. Udan, edo gabonetan, edo Thanks givin day egunean... Gogoratzen diat, institutuan, beti ari hintzela marrazkiak egiten... Eta egun batean harrapatu hinduten. Gogoratzen haiz? Nor izan zuan? Matekoa? Euskarakoa izan zuan? Bai, Euskara klasean izan zuan. Irakasleak hire apunteak jaso eta guztioi esan zigan: "Begira nola galtzen den alferrik bizitza bat". Ez zakiat nola jasan huen hori. Eta hire gurasoek, zuzenbide klaseetara joaten ez hintzela jakin ziteanean. Gogorra izan behar dik gurasoek hitz egiteari uztea. Komikiaren eskola ez zuan porrot egiten ditekenentzako zuloa, nik banekian. Ez eta aldezkarietan kobratu gabe lan egin, ez eta honelako pisu batean bizi ere, hain estu, biok, honelako auzo batean...

Har ezak. Akatsa izango lukek ez hartzea. Orain euskara-irakasleak ikusiko bahindu. Zein zuan bere izena? Ez nauk gogoratzen. Gogoratuko al duk bera hire izenaz? Hire izena kreditu-tituluetan agertuko duk? Marrazkilariei Oscarrak ematen zietek ere? Har ezak, ez izan zalantzarik. Ez hartzea, hire gurasoak ez haserretzeagatik komiki-eskolan izena eman ez izana bezalakoa izango lukek. Ez huen orduan egin, ez egin orain. Eta begira zer pozik zaudean orain. Hara joan ahal izango nauk, superrean txanda batzuk aldatuz, bost egun elkar zitzakeat. Nahiko izango al dituk? Ez duk besteengan pentsatu behar amets bat lortu nahi duanean, Pedro. Amets bat bihotzarekin nahi duan edozer duk: abokatua izatea, marrazkilaria izatea... edo moda-diseinatzailea izatea. Ez egin uko hire ametsari beste norbaitegatik. Ez egin. Damuko zaik. Orain irribarre egiten duk, baina negarrez bukatuko huke. Bazakiat... Ez, ez, ondo nagok. Pozik nagok aholku on bat eman ahal izateagatik: har ezak. (Negar egiten du)

Ele txera  
Munduko zabalduz

